Mondragon Unibertsitatea

Enpresagintza Fakultatea
Facultad de Empresariales

# myGADE

## Gradu **DUALA** Enpresen **Administrazio eta Zuzendaritzan**

**OÑATI - BILBO - IRUN**

# Inoiz ez da hain zirraragarria izan EAZ ikastea

UNIBASQ®

DUALA
DUAL

PRESTAKUNTZA **AITORPENA**
**RECONOCIMIENTO** DE FORMACIÓN
**ERREGISTRO** ZK. / Nº DE **REGISTRO**
**20006201 - D2018 - 010**

# INOIZ EZ DA HAIN ZIRRARA-GARRIA IZAN ENPRESAK KUDEATZEA ETA ZUZENTZEA

Digitalizazioak, teknologia berrien agerpenak, ekonomia globalak, enpresa prozesuen digitalizazioak, jasangarritasunari buruzko mundu kontzientziak eta gizarte erantzukizunarekiko sentsibilitateak, besteak beste, enpresek desberdin jokatzea eta erabakiak hartzea eragin dute.

## MUNDUA INOIZ BAINO GEHIAGO ALDATZEN ARI DA HISTORIAN

Egoera honen aurrean, aldatu egiten dira enpresek balioa sortzeko dituzten moduak, eta honek eragiten du, gaur egun, enpresak zuzentzea eta kudeatzea, zirraragarria izatea, inoiz ez bezala.

Aldi berean, hezkuntza paradigma ere, aldatu egin da. Gaur egun, ez da nahikoa hezitzea eta karrera profesional luzea egitea. Unibertsitatean, gaitasunak eskuratu behar dira, bizitza osoan zehar ikasten lagun diezazuten. Ezagutza teknikoak oso garrantzitsuak dira, baina ez dira nahikoak.Espazioak behar dituzu, zure trebetasun pertsonalak garatzeko, benetako esperientzia profesionalak bizitzeko, eta zure ikaskuntzan inpaktu handia izango duten nazioarteko bizipenak disfrutatzeko.

Enpresen kudeaketan eta administrazioan unibertsitate titulu bat aurkitzea erraza da.

## HEZIKETAREN PARADIGMA ERE, ALDATU EGIN DA

## myGADEk MERKATUAK GEHIEN ESKATZEN DITUEN ASPEKTUETAN PRESTATZEN ZAITU

Baina benetan ikasteko moduko prestakuntza esperientzia bat bizitzeko aukera emango dizun unibertsitate gradua lortzea, ikaskuntza metodologia berritzaileen bidez, eta merkatuak gehien eskatzen dituen alderdietan prestatzea, beste historia bat da.

Gustatuko litzaizuke ezagutzea nolakoa izango den zure ikaskuntza bidaia myGADEko 4 urteetan?

Hurrengo orrialdeetan azalduko dizugu...

# Lau arrazoi myGADEr bihurtzeko:

## ActDUAL 01

Ibilbide dualean, lau urteko lan esperientzia lortuko duzu. Gainera, konpentsazio ekonomiko bat jasoko duzu hilero horregatik.

Enpresan eskuratzen dituzun konpetentzia profesional eta pertsonalek balio bereizgarria emango dizute zure profil profesionalean.

## GoGLOBAL 02

Zuk atzerrira bidaiatzea edo atzerriko egonaldi bat izatea, guretzat ez da nahikoa.

Ikasturte guztietan nazioarteko esperientzia garrantzitsuak eta zirraragarriak bizi ditzazun nahi dugu, nazioarteko enpresak ezagutzeko, munduak nola funtzionatzen duen ulertzeko, eta begirada globala eskuratzeko.

## LearnREAL 03

Metodologia honek lagunduko dizu ikasten, baina benetan ikasten! Nola? Diziplinarteko moduluen eta enpresen benetako erronken bidez. Hauek lagunduko dizute, ikasitakoa integratzen eta ikasitakoari zentzua ematen.

Jakin nahi duzu nolakoa izango litzatekeen egun bat myGADEko gelan?

## BeFUTURE 04

Enpresa guztiek, trebetasun pertsonal jakin batzuk eskatzen dituzte beren lan eskaintzetan: taldean lan egiteko gaitasuna, erabakiak hartzen jakitea, buru analitikoa, erresilientzia, komunikazioa...

myGADEn gaitasun pertsonal hauek hiru testuingurutan garatuko dituzu: enpresan, nazioartean eta campusean.

ActDUAL
ActDUAL
ActDUAL
ActDUAL
ActDUAL

**Estatu mailan EAZko gradu bakarra gara, 4 urteko esperientzia duala izateko aukera emango dizuna DUAL+ ibilbidea jarraituz.**

**Ditugun bi ibilbide DUALetan, unibertsitatea, ez da zure ikasteko espazio bakarra izango, enpresa batean lan egingo baituzu. Gradua amaitzean, 4 urteko edo 2 urteko lan esperientzia izango duzu aukeratutako DUAL ibilbidearen arabera. Ingurune eta proiektu errealetan ibiltzeak, balio erantsia emango dio zure profilari.**

DUAL+ ibilbidea aukeratzen baduzu zure esperientzia duala intentsitate haundiago batekin biziko duzu, lehenengo mailatik laugarren mailararteko ikasketa prozesu bat izanik enpresan. Ibilbide DUALa aukeratzen baduzu zure ikasketa enpresan 3.mailan hasiko da.

Bi kasuetan zure Gradu Amaierako Proiektua enpresan burutuko duzu.

**DUAL** — Lan esperientzia enpresan 3.mailan hasita

**DUAL+** — Lan esperientzia enpresan 1.mailan hasita

# ActDUAL

# Lan esperientzia, gradu bat da !

Badakigu bertigoa eman diezazukeela enpresa batean sartzeak talde berri batekin, baina ez kezkatu: bi pertsona esleituko dizkizugu, bata enpresan, eta bestea unibertsitatean, salto hori egiten eta bide horretan lagunduko dizutenak.

## UNIBERTSITATEKO TUTOREA

Enpresa bateko taldean integratzeko eta zure helburu profesionalak lortzeko behar dituzun baliabideak emango dizkizu.

## ENPRESAKO BIDELAGUNA

Zure konpetentzien lorpenaren aurrerapena jarraituko du eta zainduko du ere, urtetik urtera, erantzukizun maila handiagoa izan dezazun, zure karrera kurba garatzeko.

myGADE GradU DUALA Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan

# Ranking-ek estatuan enplegagarritasun handieneko graduen artean kokatzen gaituzte.

"Euskadiko lehen enpresa taldeko kide gara."

"500 enpresa baino gehiagorekin lan egiten dugu."

"Gure ikasle dualen % 100 finantzatuta daude."

"Hilean sari ekonomiko bat jasoko duzu".

**97%ko enplegu tasa**

ActDUAL

# Zer esaten dute ActDUAL-ari buruz enpresek eta myGADEr-ek?



## JONE SAN SALVADOR

**Durangotarra, myGADE 4.maila , eredu DUALa EROSKI-n egiten.**

"Maila honetan gehien baloratzen dudana da, nire esperientzia duala, Eroski Koop.E.enpresak, Elorrion duen zentralean hasi ahal izana; esperientzia hori komertzial sailean gauzatzen ari naiz, hornitzaileekin lan eginez eta dendetan ezartzen diren eskaintzen antolaketan lagunduz. Denborak aurrera egin ahala erantzukizun berriak hartzen ditut, beti pertsona eta profesional gisa handituz.

Bestalde, graduak eskaintzen duen nazioarteko esperientzia bat bizitzeko aukera ezberdinei esker, duela urtebete Mexikon izan nintzen, MONDRAGON Mexiko unibertsitatean ikasketak egiten, eta aldi berean, Mexikoko enpresa sarea eta bertako kultura ezagutu nituen.

myGADE, oso esperientzia positiboa izaten ari da. ”

myGADE GradU DUALA Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan



# NEREA ALONSO

**Gernikarra, myGADE 4.maila, eredu DUALA BANKINTER-en egiten.**

"Nire kasuan, lehen mailan hasi nintzen Bankinter enpresan eredu dualean. Oso positiboki baloratzen dut enpresako langile guztien aldetik jasotako tratua, batez ere, nire ikaskuntzan denbora nola ematen duten kontuan hartuta. Arriskuen arloan kolaboratzen hasi nintzen, eta, ondoren, karrera kurba bat izan dut enpresa barruan.

Hirugarren mailan, Korean (Seul) egon nintzen International Experience Program delakoan. Oso aberasgarria izan zen euren enpresa eta kultura errealitatea ezagutzea, pertsona eta profesional gisa garatzeko.

Ikasketak eta lana uztartzea gogorragoa da, baina merezi du. Ahalegin orok bere saria du eta oso pozik nago. Hau nire karrera da! "

# ActDUAL

## Learning companies

### Oñatiko campusa

ALTUNA HERMANOS S.A. / ALUMINIOS EIBAR S.L. / AMETS BEREZAO / AMPO S COOP (NER GROUP) / ANDROMEDA TOP SPORTS SL / AQUARBE (GRUPO SUEZ) / ARRASATE-G TALDEA, KOOP. ELK.( AGT ) / ATHLON / AUSOLAN / AUTOBERRI - RENAULT / BANKINTER S.A. / BETIK / BLAZQUEZ SISTEMAS S.L. / COLEGIO URKIDE IKASTETXEA S. COOP. / COMERCIAL IPEK ARRASATE / DANOBAT / DE MIGUEL TALDEA / DEBEGESA / DECAPEL, S.L. / DELSO FERTILIZANTES BLUE AGRO, S.L. / EIMA ESCALERAS / EJIE, S.A. / EKASA / EKIDE / EKITERMIK / ENPRESAGINTZA / FAGOR HEALTHCARE / FAGOR INDUSTRIAL / FERROVIAL SERVICES-CESPA / GARLAN SCOOP / GAZTAROA SARTU SCOOP / GH SA / GOIENA / GOISOLUTIONS / GRUPO ALFA / GRUPO EROSKI / GRUPO MARCOS LARRAÑAGA (LACOR E IBILI) / GSR - GESTION DE SERVICIOS RESIDENCIALES / GURETEL (ANTIGUO GOINATEL) / HOSPITAL AITA MENNI / I2C INTERNET SLIDITEK / IKERLAN / ILLARGUI S.A. / SATI ENGINEERING SOLUTIONS / JEGAN S.A.L / KIDE, SDAD.COOP / KIÑU / KONIKER, S. COOP. / KONTA ASESORES / KOOPERA / LABORAL KUTXA / LAGUN ARO SERVICIOS S.COOP / LAULAGUN BEARINGS / LEGAZPIKO UDALA / LOGOS S.COOP / LORTEK - IK 4 / MADERAS ZUHAITZ / MAPFRE ARRASATE / MEDIOS Y TRANSPORTES GOIHERRI, S.L. / METROLOGIA SARIKI / MICROLIQUID / MIK S.COOP / MONDRAGON ASSEMBLY, S.COOP. / MONDRAGON LINGUA / NATRA OÑATI S.A. / ORKLI / PREMANK SERVICIO DE PREVENCION AJENO S.L. / PROCESADOS DE PATATA PATURPAT S.COOP / QUESOS ALDANONDO / RECTORADO MU / SIRMET / SUMINISTROS INDUSTRIALES GAMESA / TALLERES MYL SAU / TIENDAS IBI / ULMA AGRICOLA, S. COOP. / ULMA PACKAGING URKITOR, S.A. / VISCOFAN

### Bilboko

AI
ADVA
MOBILITY,
(AUTISMO E
BASQUE HEAL
COMERCIAL D
CHARMAN AUDIT
ZABALANDI, S.L. 7 E
ENVASES METALÚR
BEHARGINTZA / FERR
SPORT / GARNICA
PEÑASCAL / GRUPO S
SCOOP / INGARTE
KULTIBA KOOP ELK TX
S.L. / NAGUSPEA-BIZK
/ PUNTODIS ACCESSI
SL / PUNTU EUS FUN
SKUNKFUNK / S
TECNOLOGICA, S.L. / E
/ LAUDIOKO UDAL
CUADRA BUS /NOVAT
/ KEIN GROUP / BAK

campusa Irungo campusa

BERE S. COOP. /
NCED SERVICES IN
S.L. - ASIMOB / APNABI
BIZKAIA) / BAKER TILLY /
LTH CLUSTER / CARMUSA -
DE ARMAS Y MUNICIONES /
ORES, S.A. / CONSTRUCCIONES
EIKA / EKASA / ENPRESAGINTZA /
GICOS DE ALAVA, S.A. / ERANDIO
ROVIAL SERVICES-CESPA / FORUM
, S.A. / GRUPO EROSKI / GRUPO
SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS
K CONSULTING SL / KOOPERA /
XIKIA - AISILAN SL / MONTAKETAK,
KAIA AZPIEGITURAK / NAVACEL SA
BLE SOLUTIONS IN SIGN WRITING
NDAZIOA / SEGUROS LAGUNARO /
SOLARPACK CORPORACION /
EUSKALTEL / NAIDER / GUUK / BC3
LA / BAIBA / EDP / AQUARBE /
TIA / ASEBROK / TOKIKOM / BCAM
ER TILLY / LOOKIERO / GARLAN /
ARTEABARRI

ABRASIVOS UNESA, S.L. / ACC TRANSPORTES INTERNACIONALES, S.L. / ALL4MOVIL TELECOMUNICACIONES S.L. / AMPO S COOP (NER GROUP) / ANER SISTEMAS INFORMATICOS S.L. / ANFORA ESTRATEGIAS DE COMUNICACIÓN S.L / ARIN - EXPRESS / AROTZGI / ASELAGUN AHOLKULARITZA / ATE ASESORES DONOSTI / AYUNTAMIENTO DE IRUN / BANKOA, S.A. / BASMODEC SL / BASQUE CULINARY CENTER / BCBL / BIDASOA ACTIVA / CASER RESIDENCIAL / CONGELADOS GAROA, S.L. / CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.A. / CONSTRUCCIONES MOYUA SL / CORRAL-MACO SL / DBUS / DE MIGUEL TALDEA / DECOEXSA LOGISTICA INTERNACIONAL / EKOMODO SUSTAINABLE COMPANY, SL / ERIMA SL / EUTIK SOLUTIONS SL / GEXA LOGISTICA SL / GISAT KOOP. E. / GLOBAL PRACTICE SL / GOIKO AUTO XXI SL - AUTOMOVILES KONDIA (GORLA) / GRUPO ZB / GURDI KOOP. E./ENHELUR / HABIC / I&D NEW GENERATION BUSINESS / IKEI / KNORR-BREMSE IBERICA SL (BOST IBERICA) / LAACADEMIA HEZKUNTZAKO OPOSAKETAK SL / MANUTENCIÓN Y MANIPULACIÓN ERAMAN, S.L. / MARINA ZUMAIA S.L. REDYMAR / MATXCYCLE S.L. / MEDIOS Y TRANSPORTES GOIHERRI, S.L. / MIMBEK SL / MYL MUGAN ASESORAS SL / NEXANS (MULTINACIONAL TRADE, S.L.) / OARSOALDEA / OLGAIZ CONSTRUCCIONES MECANICAS SLL (LICAR) / ONITY SL / PEGAMO NAVARRA S.A. / RHENUS LOGISTICS / SNA EUROPE INDUSTRIES IBERIA S.A. / TAZEBAEZ S.COOP / TOKIKOM / TRANSPORTES ORTAGUI, S.A. / TXALAP.ART EKOIZPENAK KOOP. ELKARTE TXIKIA / URKO SERVICIOS DE PREVENCIÓN, S. COOP. / XPO LOGISTICS

GoGLOBAL
GoGLOBAL
GoGLOBAL
GoGLOBAL
GoGLOBAL

myGADE GradU DUALA Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan

# Ideiak aldatzeko bidaiatzen dugu, ez tokiz aldatzeko.

Graduan zehar nazioarteko esperientzia garrantzitsuak bizi ditzazun nahi dugu: asteak atzerrian, egonaldi luzeagoak enpresa proiektuekin, egonaldi akademikoak Europa, Asia eta Ameriketako unibertsitateetan eta zure Gradu Amaierako Proiektua ere, nazioarteko enpresa batean egiteko aukera izan dezakezu.

myGADE1

**Basque Companies Abroad:**
Munduarekin harremana izango duzu, ekonomiaren eta enpresa aniztasunaren ikuspegi globala eskuratzeko. Astebetez Europako herrialde batera joango zara beste myGADEr batzuekin batera.

myGADE3

**International Experience Program:**
Zuk aukeratutako espezialitate profesionalari lotutako talde-esperientzia izango duzu: Data Analytics, Marketin Digitala, Nazioartekotzea, Talentua edo Finantzak. Hilabetez kultura anitzeko esperientzia batean murgilduko zara, espezialitatearen arabera: New York, India, Mexiko, Costa Rica, Irlanda,...

myGADE2

**Intercampus Challenge:**
Zure kultura anitzeko trebetasunak garatuko dituzu, beste kultura batzuetako ikasleekin esperientziak aztertuz eta elkarrekin sortuz, emaitzak partekatzeko bidaia batekin itxiko den erronka birtual baten bidez.

myGADE4

**Nazioarteko Unibertsitatea eta Gradu Amaierako Proiektua:**
Banakako esperientzia izango duzu, nazioarteko unibertsitate batean edo atzerriko enpresa batean, arriskuak hartzeko gaitasuna izango duen eta norbera gainditzea bilatzen duen profil bat garatzeko.

Learn**REAL**
Learn**REAL**
Learn**REAL**
Learn**REAL**
Learn**REAL**

# Ikas dezazun nahi dugu, baina benetan ikas dezazun.

**Gure proposamena:**

Ikasketa eraldatzailea.

Egoera konplexuei erantzun konplexuak bilatzen irakatsiko dizuna.

## myGADEk bi arrazoi nagusirengatik eraldatuko zaitu:

BAT

Ezagutza arloak konektatzen dituzten 4-6 orduko **modulu intentsiboekin egiten dugu lan**. Esparru ezberdinetako adituekin lan egingo duzu. Sinergiak bilatzeko eta diziplina arteko erronkei aurre egiteko gai izan zaitezen nahi dugu.

BI

Ikasketa metodologia ezberdinen bidez ikasiko duzu: **Klase teorikoak, beste dinamika batzuekin konbinatuko ditugu**, hala nola, Problem Based Learning, jarduera esperimentalak, Flipped Classroom, enpresen benetako erronkak...

# LearnREAL

## Aste bat myGADEn.

# CAMPUSEAN

| ASTELEHENA | ASTEARTEA |
| --- | --- |
| DIZIPLINARTEKO MODULUA | DIZIPLINARTEKO MODULUA |
| ↓ | ↓ |
| 6 ORDU | 6 ORDU |

Hurrengo grafikoak, myGADEn astebetez bizitzea nolakoa izango litzatekeen ikusten lagunduko dizu. Gogoratu hori aldatu egin daitekeela campusaren eta zure ikaskuntza ibilbidea-ren arabera (duala edo akademikoa).

# ENPRESAN

| ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
| --- | --- | --- |
| DIZIPLINARTEKO MODULUA | DUALA ENPRESAN | DUALA ENPRESAN |
| ↓ | ↓ | ↓ |
| 6 ORDU | 8 ORDU | 8 ORDU |

# LearnREAL

## Zer ikasiko duzu lau urte hauetan zehar?

Enpresak (ETE bat, start-up bat, multinazional bat eta/edo erakunde bat izan) hainbat etapatatik igaro ohi dira beren bizi-zikloan zehar: jaiotza, hazkundea, hedapena, heldutasuna eta iraungitzea. Ikasturte bakoitzean, enpresaren bizi zikloaren fase bakoitzarekin lotutako ikasgaiak edo moduluak landuko ditugu.

**myGADE 1**

Lehenengo mailan, alde batetik, munduko ekonomia ezagutuko duzu, eta bestetik, ulertuko duzu zer den enpresa bat eta bere ingurunea, eta oinarrizko kudeaketa prozesuak zeintzuk diren ikasiko duzu.

**myGADE 2**

Bigarren mailan, enpresa bat kudeatzen ikasiko duzu, eta baita hainbat funtzioren garrantzia, enpresa optimizatzeko eta arrakasta izateko.

**myGADE 3**

Hirugarren mailan, jakingo duzu nola berritu enpresaren produktu, zerbitzu eta prozesuetan, nola kudeatu proiektu handiak eta nola ekin nazioarteko negozio eredu berriei.

**myGADE 4**

Laugarren mailan, zure enpresa proiektua burutuko duzu Euskadiko edo atzerriko enpresa batean, eta, horri esker, lan merkatuan sartzeko behar dituzun trebetasun profesionalak eta pertsonalak eskuratuko dituzu.

Ikaskuntza metodologia honi esker, hainbat sektoretako enpresen benetako erronkei aurre egin ahal izango diezu.

# INDUSTRIA

Etorkizuneko industriak, Europako Itun Berdeari eta teknologiei lotuta dituen erronkak ezagutu, 4.0 industria bezalako lehiakortasuna bultzatzeko.

# RETAIL

Retaileko egungo erronkak ezagutzea eta horiei heltzea, eta estrategiarik egokienak definitzea.

# BANKUAK

Enpresa noiz dibertsifikatu edo kanal digital berrietara noiz ireki jakin, bankuak, online bankuekin egin duen bezala.

# E-COMERCE

Egungo bezeroen leialtasuna, eta eremu digitalean, berriak erakartzeko gaitasun handia eskatzen duten negozioen marketin estrategiak definitu.

# TURISMOA

Garraioa eta hotelak bezalako merkatuetan berritu, Airbnb eta Uber bezalako plataforma berriak kontuan harturik.

# AHOLKULARITZA ETA AUDITORETZA

Aholkularitza eta auditoretza proiektuak ikasi nola egin enpresa ezberdinetan, negozioak optimizatzeko edota hazteko.

# LearnREAL

Eskema honekin, myGADEko ikasketa planaren edukira hurbildu ahal izango zara lau ikasturteetan zehar, osagai ezberdinak kontuan hartuta: campuseko moduluak, esperientzia DUALA enpresan eta nazioarteko esperientzia.

## 1.

- Datuen analitika
- XXI. mendeko enpresa
- Marketin Estrategikoa
- Kontabilitate eta lege kudeaketa
- Mikro eta Makro ekonomia
- Praktikak enpresan (DUALA)
- Nazioarteko esperientzia: Basque Companies Abroad

## 2.

- Finantza eta zerga kudeaketa
- Customer-centric Organization
- Operations Management
- Pertsonen kudeaketa
- Praktikak enpresan (DUALA)
- Nazioarteko esperientzia: Intercampus Challenge

## 3.

- Erakunde anbidiestraren kudeaketa
- New Markets & Internationalization
- Business Development
- Innovation: Product, service, process.
- Praktikak enpresan (DUALA)
- Nazioarteko esperientzia: International Experience Program

## 4.

- Gradu Amaierako Proiektua enpresan
- Nazioarteko egonaldia
- Praktikak enpresan (DUALA)
- Nazioarteko esperientzia: Gradu Amaierako proiektua enpresan ( Euskadin edo atzerrian; Erasmus + Europatik kanpoko nazioarteko programak (Amerika, Asia, Ozeania...)


03
myGADE GradU DUALA Enpresen
Administrazio eta Zuzendaritzan

BeFUTURE
BeFUTURE
BeFUTURE
BeFUTURE
BeFUTURE

# Garatu zure potentzial guztia, lan merkatuan erakargarria izateko.

Zure etorkizun profesionalak eta enplegagarritasunak zerikusia dute, halaber, taldean lan egiteko gaitasunarekin, motibazio profesionala izatearekin, erabakiak hartzen jakitearekin, modu eraginkorrean komunikatzearekin, buru analitikoa izatearekin, arazo konplexuak konpontzearekin, pertsonarteko trebetasunak izatearekin, zure balioak definitzearekin, konprometitua izatearekin, egoera zailak kudeatzearekin, zure sormena lantzearekin, analitikoa izatearekin eta pentsamendu kritikoa garatzearekin, besteak beste. Lanpostuetan eskatzen diren soft skills baldintzak ikusi besterik ez dago. Konpetentzia teknikoak (ezagutzak) eskura ditzazun nahi dugu, baina zeharkako gaitasunak ere, landuko ditugu (soft skills). Hauek, pertsonen talentuari balioa ematen diote, eta enpresa prozesuen automatizazioak mehatxatzen duen enplegagarritasun gap-ari aurre egiten laguntzen dute. Horretarako, honako trebetasun hauek garatzen lagunduko dizugu:



# % 97ko enplegagarri-tasuna dugu!

myGADEko lau urteek prestakuntza eta esperientzia sendoa eskaintzen dizute enpresa zuzendari-tzan, balio anitzekoa; enpresa batean fun-tzio desberdinak garatzeko eta sektore askotan lan egiteko gaitasuna ematen dizuna. Alumni myGADEr batzuek zer lan dituzten azalduko dizugu:

**JOKIN LASPIUR**

Commercial and Marketing director at Batz Group



**LARRAITZ ZUBERO**

Audit Manager en Ernst & Young



## ELENE ALLENDE



Aholkularia, Berrikuntzan eta Ekintzaileetan: World Bank Group

## IGOR FERNANDEZ



Product Manager : Schaeffler Iberia

## IÑIGO PEREZ DE ARENAZA



Sales Transformation Project Lead : PepsiCo

## ANE BERGARETXE



Marketing and Communication Manager : AMPO E. Koop.

# Honekin guztiarekin... Zer adierazi nahi dizugu?

myGADEko ikaskuntza, hainbat esperientzia eta aurkikuntzen bidez eraikitzen duzu, eta horregatik ezin da "betiko" ikasgeletan egin. Hori izango da hurrengo 4 urteetan biziko duzun bidea. Albert Einsteinek zioen bezala "zure ikaskuntzak zure esperientziak dira, gainerako guztia informazioa besterik ez da".

myGADE GradU **DUALA** Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan

## 1.

- MODULUA KLASEAN
- EGONALDIA ENPRESAN
- MODULUAK ETA ERRONKAK
- BASQUE COMPANIES ABROAD
- DUALA

## 2.

- MODULUA KLASEAN
- EGONALDIA ENPRESAN
- MODULUAK ETA ERRONKAK + DUALA
- INTERCAMPUS CHALLENGE

## 3.

- MODULUA KLASEAN
- EGONALDIA ENPRESAN
- MODULUAK ETA ERRONKAK + DUALA
- INTERNATIONAL EXPERIENCE PROGRAM

## 4.

- AZKEN IKASTURTEA
- GRADU AMAIERAKO PROIEKTUA
- EGONALDIA NAZIOARTEKO UNIBERTSITATEAN

# Hurrengo urratsak... →

Etor zaitez hurrengo ate irekien jardunaldira. Ez zaitu ezertara konprometitzen!

Esaten dizuguna gustatzen bazaizu... Sarbide probetara deituko dizugu!

Laster jasoko duzu zure hautagaitzaren ebazpena.

Jarrai iezaguzu:

myGADE GradU **DUALA** Enpresen **Administrazio eta Zuzendaritzan**

## ATE IREKIAK

https://www.mondragon.edu/eu/unibertsitate-graduak/ate-irekiak

## IZEN EMATEA

www.mondragon.edu/inskripzioak/saioa-hasi

## ONARPEN PROZEDURA

https://www.mondragon.edu/eu/informazioa/onarpenak

## HARREMANA


**OÑATI**

Ibarra Zelaia 2
20560 OÑATI,
Gipuzkoa
Rosa Igarza
943718009
rigarza@mondragon.edu

**BIDASOA**

Plaza Leandro Agirretxe 1
20304 IRUN,
Gipuzkoa
Iraitz Oiartzabal
943639129
ioiartzabal@mondragon.edu

**BILBAO AS Fabrik**

Olagorta Kalea, 26
48014 Bilbao,
Bizkaia
Maitane Herrera
+34 670 254 555
mherrera@mondragon.edu

# ¡Etorkizun zirraragarria duzu zain!